

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Ekainak 29, 70. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



ANTONIO URZELAI:
"Baserriak oro har pobreak ziren"


NORA JO UDAN ?



HOTZ - BERO

Kanpantorpea, 2 Tfnoa: 79 70 98 / 79 67 54
ARRASATE

TOSHIBA
BENETAKO KONFORTA



AIRE EGOKITUA

Adi ATBren

ikusle!

22.

k a n a l e r a
j o a n g a r a

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egin dugu aldaketa hau.

23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzen zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, egin ez baduzu, aldaketa txikitxo eragin beharko diozu zeure aparailuari.

23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Aurrerantzean askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.



ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1,
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Kamele
Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan
Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito
Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi,
Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalataikoan,
ASA Taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunkizunik.



Arkeologia eta gerra mota berria

Inoiz aipatu izan dut Ekialde Berlineko Pergamo museo eta bertan gozatu ahal izan ditudan uneak. Asia Txikiko persiar hiri horren izena daraman museoak, gizona boterea lortzearen zertaraino gai den erakusten digu, argi eta garbi. Irabazleak garaituari, garapenaren ikurra ez ezik, lapurketa eta espoliazioziorik ikaragarrienak ezartzen dizkio, indarraren legez. Alemania bietan turkiarren aurkako jarrera handituz doan uneotan, germaniarrek ez dute "gogoratuko" Pergamo museoan dauzkaten altxorak ostuta izan direna, nazioarteko agintarien baimenez.

Zertara dator aurreko leerroaldia? Azken denboretan, berez albiste interesgarri litezkeen batzuk azaldu zaizkigu komunikabideetan. Egipton Alejandriako Biblioteka berre-raiki nahi omen dute, UNESCOren babespean; Irakeko Sadan Hussein presidentea, berriz, Nabuconodosor berri baten antzera izan da aurkeztua, Babiloniako tenpluak salbatu nahi ei dituela eta. Israelen, bestalde, indusketa erraldoiak egiten ari dira, aintzinako aztarnen bila. Non-dik nora hainbeste mugimendu eta interesik arkeologiarengatik?

Pergamoko museoarekin gertatu ez bezala, gaur egun egiten diren aurkikuntzak estatu berean gertatu behar dira, aberastasun horren truka-keta nahiz salerosketa mundu osoaren kontrako delitutzat hartuko litza-tekeelarik. Hori horrela izanik, on-darearen iraupenak lurraldeen irau-pena adierazten du. Tinkotu egiten dira, beraz, mugak. Eta hortik apar-te, zer esanik ez, eragile ekonomi-koa ere hartu behar da kontuan. Zeinek ez daki, adibidez, Egiptoko turismoa arkeologiak erakarritakoa dena?

Turismo-jarioak ideologi-plata-forma ere bilaka dezake arkeologia, bisitariak iritsiko diren lekuetatik bertako bizimodu, pentsamolde, dotrina, eta gainerako nolakotasu-nen berri eramango baitute euren herrietara. Ez da, beraz, batere harri-garria arkeologiak gero eta garrantzi nabariagoa izatea zenbait gobernu-ren presupostuetan. Azken finean, agintariak inbertsio bezala ikusten baitute helburu horretan ipin daitez-keen diruak.

Tituluak ez gaitu okerrera era-man behar. Nik, behintzat, arkeolo-giaren bitarteko gerra nahiago dut, misil eta superkanioienekoa baino.

Josemari Velez de Mendizabal

UGARAN
jatetxea

Garagarza auzoa - t/797658 Arrasate

enpresa
bazkariak
eta famili bilerak



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan

neurri guztietako

altzarriak

Araba Etorbidea 13,

Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

IKASTARO TRINKOAK

UZTAILAN

Informatika • Kontabilitatea.

Takigrafia • Mekanografia.

Klase partikularrak.

Injinerutza Teknikoa:

Termodinamika.

AKADEMIA

BASTIDA

Informazioa eta izen ematea: Ferrerías 44, Tfnoa: 79 32 16 Arrasate

ARRASATE

PRESS

77 08 15

Txilen bakarrik

Urrian Txilen egon nintzen. Egun batez, euskaldunen arteko anaitasun afaria egin genuen Santiagoko Euskal Etxean. Hango eta hemengo euskaldunek biltzeak eragiten duen zirrara zen nagusi guztion artean.

Halako batean, adinean gora, baina begirada egia eta gazteko gizona hurreratu zitzaigun. Agapito Urarte zen, Amaiur batailoiko komandantea. Solas bare eta argikoa, haren hitzei samindura zerien, ordea. Erbestaldi bikoitza sufritzen ari zela esan zigun, zeren hemendik erbesterratu ostean, Txileko telebistan Burgoiko epaiketa publikoki gaitzetsi zuelako, baztertu eta jazarri egin bait zuten. Geroago, Pinocheten errepresopean, Viña del Mar-en zeukan enpresatxoa ere galdu zuen. Osasunaz ez omen da oso ondo ibili, eta gizona bakarrik sentitzen zela aitortu zigun.

Gerra garaiko bere gizez harro hitz egin zigun. Bere batailoikoak egindako kanpaina militarraz ere modu beretsuan egin zigun berba, Amaiurren gorrotoari etika kristaua nagusitzen bait zitzaion.

Malkotan amaitu genuen afaria, gizon haren sentimenduak benetan hunkigarriak ziren eta. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako bere gizon guztiei goraintziak emateko agindu zidan.

Nik neure aldetik, ez zegoela bakarrik esan nion, euskaldun askok eta askok gogoratzen dituztela itzal eta estimu handiz gudazelaian tinko, askatasunaren etsaien kontra burrukan egin zuten gudarien izenak.

Agur, Agapito Urarte, zuk emandako enkargua bete dudalakoan, zuere helbidea jarriko dut:

Agapito Urarte
c/Conventry 800
Nuñoa (Santiago de Chile)
Chile

Jose Mari Larrañaga

Mila esker danagatik

“Lore-Gazteak” Dantza Taldeak Ierro hauen bitartez eskertu nahi du joan zen igandean egin zen “Haur Dantzari Txiki”aren egunean umeak bazkaltzera hartu zuten familia guztiak.

Mila esker danagatik.

“Lore-Gazteak” Dantza Taldea


Presondegitik

Aurrera bolie eta gora guantxeak!


Teide mendira igotzean, eskumatarra. Kaixo jendea! Eskerrak ematen dizkizuet zuen aldizkaria bidaltzeko hartu duzuen lanagatik, baina jakin ezazue gure hizkuntza zaharrean dau den testuak oraindik ez ditudala irakurri. Ez dute ulertzen eta Imperium-eko hiriburura bidaltzen dute, itzultzera omen. Eta Jauregian gauzak motel doazenez, ba horixe! Toki honek badu famarik bere betiko eguzkiak, baina ematen du Pirineotako indixuek ohitura berriak ekarri ditugula, egunero lainoturik bait dago eta edozein momentutan euria da. Abuzturako hobetzen badu denok zaudete gonbidaturik hemendik “txango” bat egin dezazuen, baina hormetatik kanpo, jakina. Bestalde, aurrera egiten dugum geroago eta zaharrago baina gogorrago eta bide zuzenetik goazela gero eta kontentzituago, are gehiago kolore guztietako politikoengan dagoen kakatza ikusirik.

Ondo pasau San Juanak! Besarkada bat. Gora Euskadi euskalduna!

Jon Agirre Agiriano



Erabiltzen duzu bidai agentziarik? Zer nolako zerbitzua eskaintzen dute?



Simón Martínez de Arroiabe
(langilea)

Bai, batzuetan. Nire ustez normalean nahiko zerbitzu ona eskaintzen dute, ez dut inoiz arazorik izan.



Maite Martínez
(langilea)

Nik ez ditut erabiltzen, baina alabak bai. Oso ospe txarra badute ere, gero eta zerbitzu hobea eskaintzen dute.



Mertxe
(langilea)

Batzuetan bai. Denetik dago, egia esan, batzuk argibideak ematen dituzte, beste batzuk, aldiz, ez. Edozein modutan, normalean arazoak izaten dira, hegazkinak direla, hotelak direla...



Eugenio
(langilea)

Ez dut bidaiatzea atsegin; asko jota Donostiara joaten naiz.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebista, Adeslas (Muface) eta partikularrak

Kontsulta arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14. ARRASATE

Memesa

79 42 22


KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27

ARRASATE PRESS

77 08 15

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77

OSTIRALA 29

- Zinea: Alai: "Los tramposos de la loto". 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "Socios y sabuesos". 10.30etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. S. Marina.

LARUNBATA 30

- Zinea: Alai: "Un hombre inocente". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "Socios y sabuesos". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

IGANDEA 1

- Zinea: Alai: "Un hombre inocente". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "Socios y sabuesos". 5, 7.30 eta 10.15etan.
- A. M. Morales. San Andres.

ASTELEHENA 2

- Zinea: Alai: "Un hombre inocente". 7 eta 9.30etan.

Novedades: "Socios y sabuesos". 7.30etan.

- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

ASTEARTEA 3

- Zinea: Alai: "Un hombre inocente". 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: S. Español. Iturrioz.

ASTEAZKENA 4

- Zinea: Alai: ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

OSTEGUNA 5

- Zinea: Alai: "Cazador blanco, corazón negro". 7 eta 9.30etan.
- Zineklub: "Los fabulosos Baker Boys". 10.30etan, Monterron parkean.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erugin.

ERAKUSKETAK


- Zeramika eta Pintura ikastaroetako lanak ikusgai. Monterron erakusketa aretoan, Uztailaren 2tik 16a bitartean.

LEHIAKETAK

- Euskaraz egindako komiki lehiaketa Hernanin. Gipuzkoan bizi den edonork parte har dezake. Gai librea. Lanak zurbeltzez egin beharko dira. Lanak uztailaren 9a baino lehen bidali behar dira Hernaniko gaztetxera. Antolatzailea, Roka taldea.
- IV. Jokin Zaitegi Itzulpen laburren sariketa. Gaia: Ekialdeko Europaren Aldaketa. Gaztelania eta frantsesetik ezik, beste edozein hizkuntzatatik itzul daitezke lanak. AED elkarteak antolatuta, Arrasateko Udalaren laguntzaz.
- Arrasate 90 lehiaketak. Ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia, argazkia eta bideoa. AED elkarteak antolatuta, Arrasateko Udalaren laguntzaz.
- Argazki lehiaketa. Gaia: Gazteak, gazteen ikuspegitik. 14etik 35 urtera bitarteko gazteek har dezakete parte. Lanak aurkezteko azken eguna, uztailak 5. Arrasateko Udalaren Gazte Zerbitzuak antolatuta.

IKASTAROAK

- Hezitzaile eta suspertzaleentzat ikastaroa. Arlo teorikoa eta praktikoa jorratuko dira. Matrikulazio epea, ekainaren 25etik irailaren 27a bitartean. Izen emateak, susperteta soziokultural arlokoek, Hezkide Eskolan eta baztertuen hezitzaile arlokoek, Gizarte Hezketarako Eskolan. Donostiako Gotzaitegiak antolatuta.



Gaia: **“EKIALDEKO EUROPAREN ALDAKETA”** (Plangintza eta merkatuaren arteko harremanak, demokrazia ekonomikoa eta demokrazia politikoa, autodeterminazioaren eskubidea eta arazo nazionalak, Ekialdeko Europaren porrota, eredu berrien beharra, sozialismoaren krisialdia, marxismoa berriro beharra, sozialismo berriaren sorrera...)

Lanak helbide honetara bidaliko dira 1990eko azaroaren 1a baino lehen: **AED Elkarte** (79 54 46 Tfonoa.) Pablo Uranga kalea, 4 **ARRASATE**

SARIAK

- 1. SARIA: 250.000 pezetakoa izango da.** Eta finalera heltzen direnentzako akzesitak, bakoitza 50.000 pezetakoa.

Diptikoak eta informazio gehiago AEDn jaso dezakezu.

A NIMATU ETA PARTE HARTU! SARI GARRANTZITSUAK

Lanak aurkezteko epea: 1990eko azaroaren 1a

DIPTIKOAK ETA INFORMAZIOA AEDn:

Pablo Uranga 4, Behea.
Tfonoa: 79 54 46



“ Udaletxeok, gure gazteen interesak defendatza behartuta gaude, euren ikuspegia eta borroka defendatzera. Horrexegatik, hain zuzen, Bergarako Udaletxeak uko egingo dio Ejerzitoari laguntza ematen jarraitzeari, eta bere egunean hartutako erabakiaren ondorioz, ez dugu gure gazteak soldaduzkara bidaltzeko tramitaziorik egingo.

(...) Argi daukat insumisoek mugimendu sendoa osatzen dutela. Zentzugabea da gazteak soldaduzkara joaten behartzea, eta ondorioz, logikoa iruditzen zait hauek paso egitea. Era berean, logikoa iruditzen zait ere senide, auzokide eta lagunak insumisoarekin ados etortzea, eta zergatik ez, baita politikoak ere.

(...) Gainera, nolatan lagunduko diogu gure herriaren kontra dagoen Ejerzito bati? Ez halakorik. Gure gazte insumisoak defendatzeko obligazioa daukagu”.

(Jose Luis Elkoro, Bergarako Alkateak, Eginen)

“ Kooperatiban ez dugu jendea kanpotik ekarri. Nik esango nuke gehienak, %90etik gora, euskaldunak direla. Eta mondragoetarrei dagokienez, lehen Lan Kide Aurrezkiko Batzorde Zuzentzaileko gehienak Mondragoekoak ziren. Orain, berriz, bakarra: Ormaetxea”.

(Alfonso Gorroñoigoitia, LKAko lehendakari ohiak, ETB1ean)

“ Garai hartan talde kristauean eta, ibiltzen ginen. Orduan misioetara joan edo enpresak egin; hori zen buruan geneukana. Azkenean, misioak alde batera utzi eta enpresaren munduan sartu ginen”.

(Jesus Larrañaga, Arrasateko kooperatibetako fundatzailetarikoak, ETB1ean)

Zein asmo duzue jubilatutxak bizkortzeko?

Gaur egun, jubilatutxetara jendea kartetan egiteko edota besterik gabe lagunak ikusteko etortzen da. Egoitza hauetan, ez da bestelako iharduerarik egin edota bultzatzen. Orain arte bestalde, Arrasateko jubilatutxak, bakoitza bere aldetik ibili gara, ez dugu gure artean koordinaziorik izan. Momentu honetan bildu egin gara, eta denon artean jubilatutxak indartzeko plangintza antolatzen dihardugu.

Jubilatutxetara, zaharrak baino ez dira etortzen. Hau da gure arazorik nagusiena. Jubilatutxak ez dira egoitza hauetara hurbiltzen, behar bada eskaintza handiegirik ez dagoelako.

Jubilatutxak indartzeko, beraz, eskaintza zabalteko asmoa dugu. Jubilatutxetan liburutegiak eratu eta zinea, antzerkia, telebista eta bideo eskaintzak jartzeko asmotan gabilta. Kirola, bultzatutako dugu eta iharduera kulturalak ere antolatuko ditugu. Hobby eta eskulanak ere, egin daitezke. Labur esanda, hauek lirarteke, jubilatutxak berrindartzeko antolatzea pentsatu ditugun ekintzak.

Jakina, ekintza hauek ezin dira inposatu, jubilatuen eskaerei erantzun nahi diegu. Aipatutakoa beraz, proposamena baino ez da.

Udalarekin harremanetan jarri gara, Udalak ere interes handia duelako jubilatutxak iharduera zabalteko orduan. Egitasmo hau, gauzak guk uste bezala suertatuz gero, urte bukaerarako egon daiteke martxan.

Antonio Murua
Erguineko jubilatutxaren lehendakaria

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruua dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

Uztaileko kultur programazioa

Monterronek txanda hartuko Amaiari

Dagoeneko prest dago, uztailean zehar herrian izango dugun kultur programazioa. Aipatzekoa da neguko hotzak joan direnez, eta eguraldiak lagunduko duela espero daitekeenez, ekitaldi gehienak Monterron parkean burutzea pentsatu dela. Edozein modutan, egunen batean eguraldi txarra suertatuz gero, Amaia antzokian egingo lirateke ekitaldiak.

Hilaren 5, 12 eta 19an, zinea ikusteko aukera izango dugu, "Los fabulosos Baker Boys", "Wilt" eta "Este muerto está muy vivo" pelikula hain zuzen. Musikak ere bere



tartetxoa izango du uztailean eta horrela, "Round Trip Jazz" taldea-

ren emanaldia izango da hilaren 13an. Eta 14an berriz, "Casse Pieds" musika taldearena. Dantza ere ez da faltako, 6an Donostiako kontserbategiko Ballet taldearen emanaldia eta 21ean Turkiako Talde Folklorikoaren dantza emanaldia izango bait ditugu. Uztailearen 7an Geroa taldeak *La piel prestada* antzezlan eskainiko du eta 20an azkenik, Marceline i Silvestrek aurkeztutako *Miscel-Lanies* barietate ikuskizuna izango da.

Aipatu bezala, ekintza guztiak Monterron parkean izango dira, eguraldiak lagun.



Bergara

1918tik aurrerako Bergaraz doa Antonio Urzelai jubilatu bergararrak Bergara izenburuaz idatzi duen liburua. Berak ikusi edo entzun dituen berriez idatzi du Antoniok 191 orriko liburu honetan. Bergarako kultur bizitza, politikoa eta erlijiosoa, kirolak, industriaren bilakaera, baserriak, merkataritza, etabar luzea tratatzen ditu. Primerako argazki, marrazki eta grabatuz homitua. Bergara, ingurukoentzat ere eredu. Argazkian, 1918ko San Martzialak.

Camping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean

Eco Gasteiz -en

Cercas bajas 34, GASTEIZ



ETXE-AUNDI

Dastapen-menua
uztailearen 6rako

- Barazk eta ganben koktela tomate-coulisse gainean.
- Frantsesporruak izokin kezkatuz eta otarrainkak barrubeteak.
- Ahate-giharrea eregineta-sagarrez barrubeteta
- Fruta-larrina almendra-moussearekin.

3.200 pzta BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

■ San Juan jaietan zauritua

Iñaki Arsuagak, 24 urteko arrasatearra, San Juan jaietako azken entzierroa bukatzerakoan aurpegian zauri larriak egin zituen. Entzierroa amaitu dela iragartzen duen txapliegoak ez zuen gorantz bultzatzen duen hoditik irten, lurrean bertan lehertuz. Iñaki, une horretan, hodiaren inguruan zegoen eta eztaidaren eraginez, aurpegia zauritu zuen. Hasiera batean, Gurutze Gorriko anbulantziak Arrasateko Eskualde Ospitalera eraman zuen, baina handik Gasteizko Txagorritxura eraman zuten. Txagorritxutik, berriz, Bilboko Cruces bidali zuten. Zaurituari 14 puntu eman zizkioten matrail-hezurrean eta etxera bidali zuten.

■ Gay eta lesbianen harrotasunaren eguna

Ostegunean, manifestazioa egin zen Arrasaten, Gay eta lesbianen harrotasun eguna ospatzeko. Manifestazio deialdia Arrasateko Emakumeen Asanbladak egin zuen. Aurreko ostiralean, egun honen inguruan antolatutako diren ekintzen barne, Monterronen hitzaldia izan zen.

■ Kontsumoari buruzko informazioa

Arrasateko OMIC-KIUB-ek, oporraldiekin zerikusia duten zenbait gairen inguruan argibideak eman ditu. Euskaraz eta gaztelaniaz kaleratutako liburuskan autobus, tren, hegazkin eta automobil partikularrei buruzko aholkuak ematen ditu. Honez gain, bidai agentzien inguruko zenbait argibide eta hotel, apartamendu, oporraldirako turismo-etxebizitzak eta camping-en inguruko berri ere izango dugu.



Gureak-ek tailer berria ireki

50 lanpostu berri sortuko ditu

Astelehen arratsaldean Gureak tailer babestuak tailer berria ireki zuen Arrasaten. Tailer berria, Musakolako Bidekurtzetan dago. Tailerra, ASAM lantegiari erositako zati batean egokitu da.

Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Jesus M. Arrieta Jaurlaritzako Lan Sailburuak, Imanol Murua Gipuzkoako Diputatu Nagusia, eta Xabier Zubizarretak -Arrasateko Alkate eta Deba Garaiko Mankomunitatearen Lehendakaria- hartu zuten parte.

Lehenengo solairuan 50 lanpostu sortuko ditu Gureak-ek, nahiz eta hasieran 25 elbarritu baino ez diren hasiko lanean. Izan ere, oraingoz beste hamezortzik Bergaran segituko bait dute lanean. Bigarren solairuan, ostera, Gupost-en tailerra egokituko da. Gupost, Gureak tailerren

filiala da, eta beste era bateko lana egiten du. Kasu honetan, Lan Kide Aurrezkiak postaz bidali behar dituen hainbat lan egingo da bertan.

Proiektu honen finantziazioan Gizpuzkoako Foru Aldundiak, Deba Garaiko Udal Elkarteak, INEMek eta Eusko Jaurlaritzak esku hartu dute. Gureak tailer babestuak gutxi-tuentzako lana sortzen du. Denetara 800 gutxitu fisiko zein psikikori ematen die lana Gureak-ek. Arrasatekoa, erakundeak sortu duen 14. tailerra da. Arrasateko tailer berrian, orain arte lanik ez zuten edota Bergarara joan beharrean aurkitzen ziren Arrasate eta inguruetako elbarritu psikiko zein fisikoek egingo dute lan. Gureak tailerrak babestuak izatean, haien segurantzaren soziala eta lanbide arteko gutxiengo soldataren erdia, INEMek ordaintzen du.

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA

zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behe.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

NANa berrizteko

Hamabostean behin Arrasaten

Makinatxo bat jende bildu zen asteazkenean, Otalóra kaleko Udaltzaingoaren behin behineko lokalean Nortasun Agiri Nazionala berrizteko. Eibarko bulegoetako talde bat, bi astez behin etorriko da Arrasatera NANa berriztera. Neurri honekin, Eibarko bulegoetan egiten diren jende pilatze handiak nolabait gutxitu nahi dituzte.

Gogora dezagun, NANa Arrasaten berrizteko, Udaltzaingoan hartu beharko dela lehenik txanda. Dagoeneko abuztuaren 9a arteko txanda guztiak emanak dituzte, baina NAN gehienak berriztu arte etortzeko asmoa dutenez, NANa berriztu



behar eta txanda hartu gabe duena oraindik ere, garaiz dabil.



Andaluziako Etxea irekita

Jende ugari hurbildu zen San Juan bezpera egunean, Uriburu

kaleko 12ra Andaluziako Etxearen inauguraziora.

Xabier Bengoak, Udaleko Kultura Batzorde Buruak animo hitzak izan zituen guztientzat. Ramón Vegak, Euskadiko Andaluziako Etxeetako koordinatzaileak ere, parte hartu zuen ekitaldian.

Rocioko Ama Birjinaren egunean inauguratu nahi izan zuten Andaluziako Etxea, baina ezin. Hala ere, larunbata egun seinalatua izan zen, Andaluziako huteskunde eguna zelako.

Huelvako Javi gazteak, egun honetarako bereziki konposatutako fandangoa jo zuen. Ekitaldiaren amaieran, Andaluziako himnoa abestu zuten han bildutakoek.

Usteak uste...

Astelehen arratsaldean Gipuzkoako gutxitu eta atzeratuei lana ematen arduratzen diren Gureak tailer babestuek Musakolan ireki zuten tailer berriaren inaugurazioan egon nintzen. Gipuzkoan ireki duten 14.a da eta Deba Garaiko bigarrena.

Poztekoa zen, benetan hura ikustea. Bi solairu, lan desberdinak egiteko. Argi dago Gureak-en, mugitzen den jendea dagoela. Donostiako tailer batean Israeldik ekarritako nekazaritza metodo guztiz berriak jarri dituzte. Garatzen doan neurrian, desberdinduz ere badoa. Arrasateko kasuan, tailer berriaren solairuan Gureak-en filiala den Gupost enpresako langile bereziek egingo dute lan.

Gutxitu eta atzeratuen artean egoera oso desberdinak daude eta Gureak-ekoak guztiei erantzun egokia ematen saiatzen dira. Hori da bidea gure anai-arrebak diren gutxituak benetan gizartean integratu nahi baditugu.

Oraindik asko falta zaigu beste herri batzuek gutxituen tratuan lortu duten maila erdiesteko, baina Gureak tailerrak egiten ari diren lanak zein den bide egokia erakusten digu.

Joxe Aranzabal

Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

E D E L TAPIZTEGIA

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



Susana Arregi Oñatin lurperatu

Jende ugari Irunberrin hildakoaren azken agurrean

Asteazkenean, lurperatu zuten Oñatiko kanposantuan, Susana Arregi, Irunberriko gertakizunetan hilda aurkitu zuten ustezko ETAKidea.

Gorpua 11ak aldera abiatu zen Iruñetik. Komitibak, 1.30etan zeharkatu zuen Arrasate. Meca inguruan taldea bildu zen hildakoari omenaldia egiteko. Gorpua, bere baserrian jaso zuten eta arratsaldeko laurak bitartean familiarterkoak lagunduta egon zen. Lauretan, besotan hartu eta ikurriñez inguratuta, Oñatiko udaletxeraino eraman zuten.


Zerraldoak ETaren anagrama zuen, ikurriñez estalia Oñatiko Udaletxeko pleno aretoan ezarri zuten, azken agurra jasotzeko.

Oñatiko komertzio eta denda gehienak itxita egon ziren, KASen huelga deialdiari erantzunez.

Ilunkeran, hileta elizkizunak egin ziren eta ondoren herriko plazan omenaldia. Jende ugari bildu zen Oñatin Susana Arregiri azken agurra eskaintzera. Ondoren egin zen manifestazioa bukatzera zegoenean, istiluak egon ziren Ertzaintza eta manifestarien artean.

Txikizioak S. F. Xabier ikastolan

Astearte gauean ezezagun batzuk S. F. Xabier ikastolako kiroldegi berrian hondamen handiak egin zituzten. Kiroldegi sarreran dagoen lorategian landatuta zeuden zuhaitz-landare guztiak sustaretik aterata eta beheko patioa botata agertu ziren. Kiroldegiak goikaldean dituen leihoak ere, apurtuta zeuden eta kiroldegiaren goiko kantxan, farola bat erdibituta, burdin-hezi bat guztiz okertuta eta aulki bat ere, lurretik atera eta kantxa erdian jarrita aurkitu zituzten.



JAIOTZAK

De Cos Moreno, *Alexander*. Ekainaren 14an.
Moreno Mujika *Aitor*. 19an
Peña Arregi, *Antton*. 21ean
Moreno Escobar, *Yasmina*. 21ean.

EZKONTZAK

J. Luis Aparicio Gonzalez & Idoia Barandiaran Benítez. Ekainaren 16an. Elizaz



ARRASATEKO UDALA

Arrasateko Udalak beka erdiak ematen ditu UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAN parte hartzen duten arrasatear guztientzat.

Eskariak aurkezteko epea uztailearen 14ean amaitzen da. Eskariarekin batera matrikularen ordain-agiria aurkeztu behar da.

SASKI-NASKI

lehiaketa

Asteroko sariak



KULTURA

Aranzabal Akobe
elektrogailuak

**IRRATI-
-IRATZARGAILUA**




MELIA BIDAIK

Etxe Aundi jatetxea



**AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT**



**OKIENDO
KIROLAK**

ZAPATILAK



Ikatz

argazki etxea



**ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA**



**ASTE HONETAKO
SARITUAK**

PAULA ALTUBE
Irrati-iratzargailua

MAITE OLABE
Bi lagunentzako afaria

SANTOS IRIONDO
Kirol zapatilak

GAIZKA UNZUETA
Argazki makina

Hileko sari handia



KULTURA

Aranzabal Akobe

HI-FI Thomson ekipoa:
diskogailu,
anplifikadore, pletina
bikoitz, sintonizadore
eta hiru bidetako
pantailarekin

Galdera:

Non jarri zuen ATBk platoa San Juanetan?

Erantzuna:

Izen-deiturak:

Helbidea: **Adina:** **Tlfnoa:**



Aurtengo makalak 21 metroko luzera zuten. S. Prudentzioko makalditik ekarri zuten. Koadrilek lepoan hartu eta, animoso asko, Musakolatik Herriko Plazaraino eraman zuten. Plazan, denbora luzea behar izan zuten makala zutik jartzeko. Bigarren ahaleginean Udaletxeko fatxadaren gainean jausi zen.



Goizeko 7.45etan Zaldibarren zeuden lau arrantzale ondarrutarrak, azken eguneko Marmitakoa prestatzeko. 700 bazkaltiarrentzako 100 kg. hegaluze ekarri zuten, 25 kg. biper berde, 300 kg. patata, 38 kg. kipula eta 6 litro olio. Marmitakoari koñaka botatzen ikusi genituen. Badakizue zertarako? Gustoa emateaz gain, patata ez gogortzeko.

Erraldoi eta Kilikien konpartsen barruan hanka biko zentauroa ikusi genuen, oso dotorea bera. Kalean gora eta behera ibili ondoren, **Iñigo Txintxurretarekin** antz handia duen honek, tartetxoa aurkitu zuen lagunak egiteko.



IRAKASLE ESKOLA

IRAKASLE ESKOLA. ESKORATZA

Magisterio Eskola honek zera jakin arazi du:

1990-91 IKASTURTERAKO
AURREINSKRIPZIO-EPEA UZTAILAREN 20^{arte} ZABALIK
DAGOELA

Informazioa: Irakasle Eskola. Eskoriatza. Gipuzkoa Tfnoa: 943 - 79 04 40

Ordutegia: 9-13

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

LARRINGAN


auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE




L aurogei urtetik gorako 110 aiton-amon bildu ziren S. Juan egunean Udaletxe berriztuan, Arrasateko Udalaren omenaldia jasotzera. Eskaini zitzairen luntxean apetito ona erakutsi zuten. **Isidora Morenok**, 97, lore sorta ederra jaso zuen. Beste horrenbeste **Antonio Morak**, 93, zaharrenak bait ziren. Beste guztiei opari bana eman zitzairen.



Arrasatek cow-boy onak dauzka, dudarik ez. Astelehenean kondekuaren parean jarri zen **zezen mekanikoan** egiaztatu ahal izan genuen. Hala ere, gure gazte ausartek lurrerako bidea hartu behar izan zuten behin baino gehiagotan.



Dotore eta formal eramán zuten gure agintariek S. Juan Bataiatzailearen irudia parrokiaraino, Salbea entzutera. Eliza jendez gainezka zegoen. Salbea zazpi abadek errezatu zuten, parrokoaren zuzendaritzapean.



AHIZKE-CIM Koop. E.


ACEIG-FECElko kidea
Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana
Frantsesa
Ingelesa
Italianoa

ITZULPENAK
INTERPRETARIAK

Bisitak, Hitzaldiak
Katalogoak
Foileto teknikoak
Telex-a, eskutitzak
eta txostenak



Araba Etorbidea 4, tñoa: 79 01 32 ARRASATE



Kontzesifio 2,
Tñoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tñoa: 79 14 33
ARRASATE



Hau bai ona, hau. Behin bakarrik deitu du Errealak Jon Igoa UEFAko partidua jokatzera. Colonian izan zen. Azken orduan, ostera, Toshackek kanpoan utzi zuen, eta ahalik eta azkarren Donostiara itzultzeko agindua eman zion Joni, Sansekin partidua joka zezan. Hori ikusita, Alemaniako kazetari sentsazionalistek sekulakoa asmatu zuten orduan: Toshackek ekipotik bota zuela, neskekin harrapatu zuelako. Ezagutuko balute Jon Igoa!



◀ Mundu guztiaren ahotan izan dugu egunotan **Andoni Zubizarreta**. Nahiz eta taldea kanporatuta egon, Italian jokatu dituen partiduak ikusita, aditu askok munduko atezain onena izendatu dute. Omenaldi gisa, orrialde honetara ekarri nahi izan dugu lehengoan *Eguna* astekarian aurkitutako karikatura hau. Zorionak, eta eutsi goiari, Andoni!

Alfonso Gorroñoigoitia eta Jesus Larrañaga ETBn izan genituen, *Astelehen buruzuri*, Amatiñoren sasoi honetako azken programan. Ederto moldatu ziren mondragoetarrok *Andu Lertxundi*, *Iñaki Zabaleta* eta *Nerea Azurmendiren* galderei erantzuten. Pantailako azpitituluetan, ordea, alderantziz azaldu ziren euren karguak. Izan ere, Jesus Larrañaga da Fagorren Nazioarteko Ekintzen Zuzendaria, eta Alfonsok izan zen LKAko lehendakaria.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



Epelde

◀ San Balerion ezkondu ziren **Juan Ramon Zubizarreta** eta **Pili Bolinaga**, maiatzaren 5ean. Ondoren, Kubara joan ziren eztaibidaian.

Aurrerantzean, mila zorion bikotearentzat!


izen propioak

■ **Juan Arzamendi**, 62, arrasatearra, "Aupa Arrasate" himno berria konposatu du. Juan Arrasate Musikalen zuzendaria da 1972. urtetik hona. Aurretiaz, Arrasateko Udal Bandaren zuzendaria izan zen, hamalau urtez. Piano, armonia eta konposizio ikasketak egin zituen. Azken berrogeitalau urtetan, notarian lan egiten du.

■ **Carlos Urbieta**, 58, zarauztarra, Aupa Arrasate himnoaren letra egin du. Carlos, Aita Frantziskotarra da eta gaur egun Segurako parrokoa. Lehenago Arrasateko Frantziskotarrekin bederlatzi urte egin zituen. Klarinete, piano eta polifonia ikasketak egin zituen.

■ **Agustín Ibarluzea**, "Txispas", 37, arrasatearra, San Juan jaietan Zipirekin izan zuen pilota desafioa irabazi zuen, 22-16 emaitzarekin. Agustinek, Maisu industrial ikasketak egin zituen Eskola Politeknikoan. Azken 14 urteetan Arrasateko Eskualde Ospitalean dihardu lanean. Arrasateko Udaleko HBko zinegotzia da.

Hor ikusten dituzue *Saski Naski* lehiaketaren azken irabazleatariko bi. **Edurne Martinezek** jaso zuen Etxe Aundiren afaria, eta **Iker Oriak** Okendo kirolakentzako zapatilak. Agertzen ez diren arren, **Jose Luis Salaberrik** Ikatzen argazki makina eraman zuen, eta **Ruth Trigasek**, berriz, Aranzabalen irratizargailua. ▶



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE



Otalora 2, ARRASATE

Abuztuko bidaiaren bila

Marokko, Turkia eta Ekialdeko Europa modan daude

Amaitu dira San Juanak; ixildu da jai-hotsa.

Gainean dauzkagu uztailleko beroak, eta geroxeago, hilabete barru, hor etorriko da abuztua. Lotan geldituko dira orduan gure lantegiak, eta gehienon zorionerako, helduak izango dira oporrak.

Batzuk hasi zaizkigu dagoeneko planak borobiltzen; beste asko eta asko, ez.

Honakoan, bidaiatzeko ohituren inguruan prestatu dugu gure erreportaia., Abuztuko oporrak gainean ditugu eta.



Jendea elkarri txutxumutxuka, udarako planak komentatzen

Arrasaten lau bidai-agentziak dihardute lanean gaur egun, Baskotour, Ecuador, Eroski eta Meliak hain zuzen. Denetariko aukerak aurkituko ditu bezeroak bertan, Estatuko edozein hiriburutarako autobusetik hasi, eta munduan zehar zabalduetako hainbat eta hainbat hoteletarako erreserbak arte.

Antza denez, sarritan erabiltzen ditugu arrasatearrok agentzia horiek. Urtean zehar, batez ere negozio-bidaiak direla eta: ferietara, bezeroen bila...

Gabonetan eta Aste Santuan ere ez omen diegu irteerei ukorik egiten. Egun gutxiago dira, ordea, eta bolada horietan Baleares, Canarias, Benidorm, eta Levanteko kostak aukeratu ohi ditugu; Estatuko guneak, alegia.

Dena den, abuztuan sortzen da turismo-mugimendurik aipagarriena.

Modak direla, modak

Bidai-agentzietara, hogeitabost ur-

tetik gorako jendea azaldu ohi da. Gaztetxoek, noski, ez dute dirurik, eta asko botata, autobus edo tren txartel baten bila etorriko dira.

Hogeitabost urtetik gorakoen artean, mota guztietako aukerak, beti ere segun eta modak zer esaten duen.

Duela urte batzuk Europa Erdial-

Arrasatearren ohitura makala, aukeraketa eta prestakuntza guztiak azken ordurako ixtea. Gero, dagoenarekin konformatu behar.

derantz jotzen zuen jendeak: Austria, Suitza, etab. Orain, ordea, hogeitabost eta berrogei urte artekoek Marokko, Turkia eta Ekialdeko Europa ezagutu nahi dituzte gehienbat; neurri txikiagoan Bali, Thailandia, eta antzeko toki exotikoak.

Senar-emazteek semeekin atera-

tzen direnean, Mediterraneoko kostak aukeratu ohi dute. Aurten, asko izango dira Galizia eta Portugalera joango direnak.

Azken urteotan gorantz egin duen beste fenomenoak, neska-mutikoak ingeles familiatan udako egonaldiak egitera bidaltzea. Turismoa bai, baina ikasteko aprobetxatuz.

Erdi mailako turismoa

Arrasatearrok, erdi-mailako turismoa egin ohi dugu, ez luxuzkoa, ezta makalegia ere. Bataz beste, bidai-agentzietara azaltzen den jendea 100.000 pta., edo hortik gora emateko prest etortzen da. Bataz beste, ez denak.

Familia osoa irtetzen denean, apartamentua alokatu eta listô.

Bikote gazteek, batez ere eztaibidaietan doazen senar-emazteek direnean, hotelak nahi izaten dituzte egonaldiak egiteko.

Gazte taldeek, berriz, hegazkin, edo tren txartelak eskatzen dituzte soilik. Behin aukeratutako tokian egonda, Camping-a da lagunik onena. Bidaiantolatuek ere arrakasta handia izan dute jende honen artean. Prezio merkeagoak ordaindu, eta toki asko ezagutzeko aukera ematen dute, bakar batean geldi egon beharrean. Kasu haueetan, egonaldiak bereziki egokitutako ikastetxe, edo egoitzatan egiten dira.

Zenbait ohitura

Arrasatear gehienoi, ohitura txar bat leporatzen digute agentzietakoek: oporetarako prestakuntza azken ordurako ixtea.

Nora joango diren oso argi daukatena, bizpahiru hilabete lehenago

agertu ohi dira. Plaza ziurtatzen dute, tarifa onenak, aukeratutako datak, eta bidaia onenak eskuratu.


Azken ordukoak, ostera, dagoenarekin konformatu behar.

Garraiobideei dagokienez, autoa, tren eta 'Charter' hegaldiak dira erabilienak, ordena horretan gainera.

Bilatu, hondartza eta eguzkia bilatu ohi dugu mondragoetarrok. Adinez nagusiek, lasaitasunaren osagarritasuna eskatuko dute; gazteentzat ordea, hondartza, eguzkia eta 'martxa'k osatzen dute triangelu bikaina.

Badator abuztua; badatoz oporrak. Hutsik geldituko da Arrasate.

Mundu zabalera aterako direnei, ondo joan; besteek, hemen gelditzen diren lagunek ederto zainduko diete herria eta!



Bidai-agentziak dagoeneko burubelari lanean, jendea informatu eta laguntzen.

Hegaz egingo dute txoriek

Agian beroagatik izango da, eguzki ederragatik, baina hor-nonbait nabari da dagoeneko opor-usaia. Berehala izango dugu abuztua hemeri, eta orduan, hilabetez, aldatu egingo ditugu gure ohizko kabiak; Arrasateko txoriak mundu zabalean hegaz egitera...

Kepa Martin, 19 urte. Oraindik ez zaio urrutiegira joateko garaia heldu. "Lagunekin iritzeko gogoia bai, baina diru gutxi. Agian

Santanderrera, edo asko botata, Asturiasera joango gara. Camping-az, noski, ez gaude tontakeriatan ibiltzeko. Xoxak bukatzen zaizkigunean, etxera itzuli eta inguruetako jaietan ibiliko gara".

Ba, horretarako ere behar dira gero hogierlekoak!

Ines Garcia, 27 urte. Azken urteotan oporretan kanpora itetzeari ekin, eta gustua hartu omen dio. "Aukera ezberdinak aztertzen dihardugu. Seguruenik Italia eta Jugoslaviarantz joko dut mutilarekin, Camping-a bizkarrean hartuta. Lasaitasuna bilatuko dugu, nahikoa parranda egoten bait da urtean zehar".

J. A. Zubizarreta. 42 urtekin, 14 eta 12ko

neskatilak hartu behar ditu kontuan oporrak programatzerakoan. "Urtero joaten gara Torrevieja emaztea, neskatilak eta lauok, adin bereko neska-mutiko bikotea duen beste matrimonio batekin. Denon artean apartamentu handitxo alokatu, eta guztiak konforme: neska mutikoek badute norekin jolastu, andrak hor ibiltzen dira euren kasa, eta gizonok geurera. Gainera, bertan egoten diren beste euskaldun batzuekin egingo dugu kuadrila izela".

Koadrila ederra elkartuko dira ere, Grezia eta Turkiako lurak ezagutzera joango den autobusean. Horiatariko bat, 30 urte dituen Fernando Arregi. "Hiru lagun gara. Joan zen udan lagun batzuk ibili ziren handik, eta aurkituakoarekin pozik geratu. Informazio bila etorri, eta garaiz heldu ginen bidaia-antolatza baten plaza harrapatzeko. Autobuseko literatan egingo dugu lo, eta prezioz merketxoak iruditu zitzaizgun. Auskalo nola erantzuten dijon gorpuzak gero tokirik-tokirik ibiltzearen zirtzaritadari".

Gorpuzak, seguruenik ederto. Oporretatik bueltan, ordea, zeharo aldatuko da kontua.

Txoriak triste, berriro kabian.



**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE



ARRASATEko UDALA

Ekainaren 27tik irailaren 15era arte, Udaletxeko bulegoak itxita egongo dira arratsaldez eta honako hau izango da jendearentzako ordutegia: goizeko 10etatik eguerdiko ordubiak arte.

Bestalde, uztailaren 5ean, bulegoak lekuz aldatzen direla eta, Udaletxea itxita egongo da jendearentzat.

Uztailaren 6an Herriko Plaza Nagusian kokatuta dauden Udaletxeko bulego berriak zabalduko dira.

Udaltzaingoaren bulegoak, berriz, ekainaren 20an aldatu ziren Udaletxe berrira.

Alkatea

a.d.o.s.

PSIKOLOGOAK

DIAGNOSTIKO ETA ORIENTAZIO PSIKOLOGIKORAKO ELKARTEA

- DIAGNOSTIKOA ETA PSIKOTERAPIA (HAUR ETA HELDUENTZAT)
- ESKOLA, LANBIDE ETA BIZITZARAKO ORIENTAZIOA

Arca 3 1. D Tfnoa: 945-141214 01005 GASTEIZ

baldana

- Medikuntza orokorra
 - Txertaketak
 - Kirurgia
 - Laborategia
 - X izpiak
 - Odontologia
 - Ile apaindegia
- URGENTZIA 76 27 97

Koldo Elizalde 28, Etxebehea.

Tfnoa: 76 27 97

BERGARA

“Baserriak oro har pobreak ziren”

Antonio Urzelai, “Bergara” liburua kaleratu berri

Aste honetan bertan aurkeztuko da Bergaran, Antonio Urzelairen “Bergara” liburua. Santanderren ikasketak amaitu eta Bergaran El Dia egunkariko korrespondentsal izana, Espainiako gerra zibilean ere parte hartu zuen, Gudarien ofizial izanik. Gerra ostean, zenbait zailtasun gainditu ondoren, 40 urte eman zituen berak eta beste bi lagunek eraikitako tailerrean lan egiten. Jubilatutakoan, ezin geldirik egon eta “Bergara” liburua idazteari ekin zion. Liburua lau urteko ikerketa-lanaren emaitza da.

— Arrasate Press: Zerk bultzatu zintuen 1918. urteko Bergara aztertzea?

— Antonio: Niri, baserriko semea izanik, baserriko gaiak beti gustatu izan zaizkit. Jubilatutakoan, zerbait egin behar nuela eta, Bergarak zein urtetan izan zuen baserri gehien aztertzeari ekin nion. 1918. urtean, Bergaran bi baserri hustu zirela aurkitu nuen. Baserri hauek ez ziren inoiz berriro bete. Garai hartan Bergarak 409 baserri zituen eta 507 bizitoki, izan ere, baserriek askotan etxebizitza bat baino gehiago izaten zuten. Bergarak baserri gehien izan zituen garaia hori izan zen. Orduan hasi ziren baserriak uzten. Hori dela eta, aukeratu nuen 1918. urtea nire ikerketa egiteko.

— Edozein modutan, ez duzu zure lana baserrietara mugatu?

— Ez. Baserriak etxerik etxe eta bizitzaz bizitza aztertu nituen. Baserri bakoitzeko etxejaunen zerrenda ere egin nuen. Horrez gain, errenteroak zeintzuk eta jabeak zeintzuk ziren aztertu nuen. Baserrien azterketa bukatu nuenean, beste zerbait egin beharko nuela pentsatu nuen.

Eta azkenean, urte horretan, herriak zer nolako egitura zuen ikertu nuen. Udal Gorporazioa nortzuk osatzen zuten eta zein jarrera politikoa zuten, herrian indarra

nork zuen, medikuak, eta azken finean, herriko bizi-modua nolakoa zen ikusi nuen. Irakaskuntzaren egoera, Seminarioaren bilakaera, industriak zein indar zuen eta nolakoa zen, etab.

— Lan hori egiteko zein iturritz baliatu zara?

— Udal artxiboak eta elizetako artxiboak erabili ditut, baina informazio gehien garai hartan bizi ziren pertsonen hitz egiten lortu dut.

Artxiboetan orain arte, edozein sar zitekeen. Gerra ere ezagutu genuen eta artxiboak ez dago nahi bezain ondo, behintzat nik aztertu nahi izan dudana garaiari dagokionez. Hemen inguruetan, elizetako artxiboak dira ondoen zainduta daudenak.

Bestalde, ni bezalako afizionatuak horrelako lekuetara joaten garenean, galdera

“Gure aurretikoak zer egin duten, gure herrietan zer gertatu den jakin behar da”

askori erantzun behar izaten diegu. Normala da, jendeak bazterrak aldrebesten gabiltzala pentsa dezake eta.

— Baserriak izan dira zure lanaren oinarria. Beraz, zer nolako baserriak ziren, aberatsak, pobreak...?

— Baserri erdiak inguru, bertakoen jabeago ziren. Hau da, baserriarrak baserriaren jabe ziren, baina beste erdiak



Antonio Urzelai

maizterrak ziren. Ezin esan aberatsak zirenik, ez. Hemen inguruetan ez da baserri aberatsik egon, banakaren bat behar bada bai, baina besterik ez. Nik uste Euskal Herriaren oro har egoera antzekoa zela. Bergaran 400 baserri 10en bat baserri on egongo zen. Hemen beti egon da lurra zatituegia eta ez zuten nahikoa zabalera, bertan jaiotzen zen familia ondo bizi ahal izateko. Edozein modutan, jabe eta maizterren artean desberdintasunak baizeuden. Garai hartan baserriek gari eta artoa ekoizten

terrek, berriez, ezin zuten bota jabeagoaren barruan zegoen ezer, jabearen edo administradorearen baimenik barik.

Esan dudana bezala, baserri aberatsak gutxi ziren, maiorazgo etxeak deitzen zitzaizkien. Hauek industriei eta, ematen zieten dirua, interesen truke, korrituak deitzen genien guk.

— Nori begira egin duzu liburua?

— Herritar arruntei, bergararrei begira egin dut. Gure aurretikoek zer egin duten jakitea komenigarria da. Beste herritan ere, horrelako ikerketak egitea komenigarria litzateke.

— “Bergara” liburua kaleratu duzu, besterik egiteko asmorik?

— Ez dakit, zer edo zer egiten segituko dut. Bergarako pertsonaia herritarrek zeintzuk izan diren aztertze-ko asmoa dut. Nola bizi ziren, trukean ezer eskatu gabe, jendea irrifarrea nola eragin izan dioten jaso nahi dut. Pertsonaia horiek, herriaren beste historia bat egin dute.

Gauza asko dago egiteko, baina esan dudana bezala, ni afizionatua baino ez naiz.

Arrasate Atletiko taldeak maila galdu

Nahiz eta Gay eta Maizbidek lan ederra egin

Larunbatean Getxon jokaturako Euskadiko taldezkako txapelketan, Arrasate Atletiko taldeak zazpigarren postua eskuratu zuen, 60.5 punturekin. Horrenbestez, gure taldea mailaz jaitsi da. Datorren denboraldian bigarrenen aritu beharko da.

Proba bukaeran, lau puntu falta izan zitzaizkien bakarrik helburua lortzeko, hau da, mailari eusteko.

Hala eta guztiz ere, txalagarria da gure atleten lana, eta aipagarriak dira batez ere Jose Antonio Gay eta Ignazio Maizbidek euren probetan lortutako urrezko dominak.

Jose Antoniok 400 metroak korritu zituen, 48 segundu eta 9 hamarretako markan. Segundu batetik gora atera zion bigarren postuan heldutako Permach donostiarrari.

Ignazio Maizbidek, bere aldetik, 59 metro eta 16 zentimetrotara bidali



Ignazio Maizbide taldearen euskarrietariko bat

zuen txabalina. Euskadiko errekorra duen arrasatear honek, 7 metroko abantaila atera zion bigarrenari,

Markiegi tolosarrari hain zuzen.

Larunbateko proban, Euskal Herriko Unibertsitateko taldea izan genuen garaile, 126 punturekin. Bigarren Errealak, 120 puntu. Hirugarren Atletiko SS, 108; laugarren Itsasadar, 77; bostgarren Bidasoa, 74; eta seigarren Portugalete, 64.5.

Pena handia izan da lau puntu horiengatik jaitea. Ezin dugu ahaztu aurrekontu sendoagoa duten taldeen kontra borrokatu dutela arrasatearrek.

Gainera, larunbatean ezik, emaitza ederrak eskuratu dituzte azken urteotan; 1989an seigarren, eta aurtengo pista estaliko Euskadiko txapelketan bostgarren. Guzti hori, kontuan izanda zein eskasak diren Iturripeko instalazioak.

Gaurtik aurrera lanean segitu behar, beraz, ahalik eta azkarren merezi duten mailara itzultzeko.



Pilota ikuskizun aparta

Hor ikusten dituzue lau pilotariak, Zaldibarrera bidean, astearte arratsaldeko pilota partidu ikaragarriak jokatu asmoz.

Lehenengo partiduan Langaran (Meatzerrekako Txikia) eta Reyes (Elosuko Txikia) aritu ziren elkarren kontra. Parekotasuna. Azkenean, Langaran nagusitu, 22-21eko markagailuaz.

Estelarrean, ostera, Agustin Beitia 'Zipri'k, eta Agustin Ibarluzea 'Txispas'ek neurtu zituzten indarrak. Aurten goan bai, asmatu zuen 'Txispas'ek, eta berarentzat izan zen txapela 22-16 irabazi eta gero.

Ikuskizuna, paregabea benetan!

olioak, lientzoak,
Artea
akwarelak eta eskulanak
Ferrerias 25

Lua
gozokiak
Erdiko kale 8,
Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE

Monte
taberna
Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

podiuma


Rafa Beloki.
auto-krossaren
balada tristea

Hainbat baldintza elkartu ziren, hogeitabat urte dituen Rafa Beloki auto-krossaren mundura hel zedin. "Etxean, tailerra genuela eta, auto eta motor artean hasi nintzen. Hantxe ikasi nuen lehenengo txapuzak egiten. Gainera, anaia nagusia beti saltsa horretan sartuta ikusi, eta neuri ere proba egiteko gogoá etorri zitzaidan".

Autoak ditu atsegin; badaki, ordea, kirol honek ez duela presentzia sendorik gure artean. "Inguru hauetan ez da inoiz inolako talderik osatu, guztiek gerra bere kabuz egiten. Eta horrela doakigu: ez laguntzarik, ez entrenatzeko gune aproposik, eta ia-ia ezta korritzeko probarik ere".

Nolatan egiten du aurrera orduan. "Zirrara handiko karrerak gus-tatzen zaizkidalako. Dena den, diru falta dela eta, oso gutxitan izaten dugu lehiatzeko aukera".

Berebila egokiro prestatzeak ere baduela, gero, bere artea. "Lehenik karrozeria lortu behar duzu, desegite-tailerretan, edo autoz aldatu behar duen norbaitekin tratua egin eta gero. Ondoren, sekulakoak eta bi egin behar: motorra guztiá aldatu, barrukaldea hustu pilotuaren eserlekua ezik, autoa irauli ez dadin barrak jarri, etab. Lan asko, eta sarritan, automobil egokitu-berriarekin lehenengo auto-krossa jokatzerá joan, eta bertan gelditzen zaizu



pot eginda, zuzen txatarrara bidaltzeko moduan".

Kirol arriskutsua ez ote den galdetu, eta Rafak ezetz erantzuten du. "Kolpeak jaso bai, batez ere autoa irauli egiten denean. Baina nik dakidala behintzat, urte guzti hauetan segurtasun gerrikoaz korritu dutenei ez zaie ezer serio-rik gertatu".

Eta kuriosoa, auto-kross proba batean ez dago araurik, ez dira zigortzen automobilen arteko ukituak. "Pilotuen arteko 'pikea' jatorra denean, ikuskizun ederra eskaintzen da. Hori bai, norbait fede txarrez ari bada, besteak arriskuan jarriz, nola edo hala beti aurkitzen dugu modua morroi hori geldiarazteko".

Noren esku dagoen, bere ustez, kirol hau goraka eramatea. "Alde batetik, Federazioaren laguntza behar da: entrenamentu guneren bat egokitu dezatela, probak antolatu, eta dirulaguntzak eman. Bestetik, pilotuek ere egin beharko genuke zerbait, sikiera Elkarteá sortu".


Eskubaloien
etorkizuna kolokan

Duela aste batzuk, Arrasate Kirolak eskubaloí taldeko zuzendaritza osatzen zuten zazpi lagun-ek bertan behera utzi zituzten euren karguak. Hutsunea betetzeko, oraindik ere zabalik dago hautagai berriak aurkezteko epea, uztailaren 5ean egingo den taldearen batzar orokorrean erabakiko delarik nortzuk hartuko duten etorkizunaren kargu.

Gaur arte, ordea, ez da inor azaldu datorren denboralditik aurrera taldeá eramateko prest; eta ez bada laster norbait aurkezten, taldeá desagertzeko arriskuan dago.

Arrasateko eskubaloiak ez du, ez, halakorik merezi. Diru aldetik ondo dagoen taldeá, amaitu berria den denboraldian zalantza barik bera izan dugu poz gehien eman diguna, emaitza eta maila ederrenak eskuratu dituen ekipo arrasatearra.

Talde hori, laguntza bila dabil orain. Gero berandu izan daiteke.



Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



Eskaiola, pintura eta kortexoko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

Negu Gorriak, bide berriak

Gogoratzen dut nola poztu nintzen herri txiki bateko jaietan Egan taldekoei lehen aldiz pasodoble bat euskaraz entzun nienean. Pasodoblea bera ez zitzaidan batere gustatu eta Egan, berriz, ez da izan nere debozioko santua, ez orduan eta ez gaur. Baina euskaraz bertsolariak eta kantautoreak bakarrik entzuten genituen garai hartan, oso inportantea iruditu zitzaidan musika-mota guztiak euskaraz entzun ahal izatea, aukeratzeko ere.

Euri askok busti gaitu geroztik, eta euskal musikak bide luzea egin du urteotan. Gaur esistitzen duten musika mota ia guztiak euskaraz ere egiten dira, eta bakaitzak bere aukera egin dezan ahalbidetzen du horrek.

Oraingoan rap-ari tokatu zaio. Azken urteotan New Yorkeko bel-


tzen artean sortutako estilo berri honek arrakasta handia lortu du, eta beraien oihuak eta mintzatzeko modua itzulgaitzak baziruditen ere, hizkuntza guztietan ari dira rap egiten dagoeneko. Euskaraz ere bai.

Lan hori talde berri batek hartu du, *Negu Gorriak* izenekoak. Beno, taldea da berria, zeren partaideak oso ezagunak bait dira euskal musika gaztean: Fermin Muguruza, *Kortatu* ohia, *Delirium Tremens*-eko Iñigo Muguruza eta *M-akeko* Kaki Arkarazo. Diskoa irten berria da eta hau idazterakoan ez dut oraindik ganoraz entzuteko astirik izan. Baina entzun ditudan izpiak asko gustatu zaizkit. Musika guztiz raperoa da, eta taldeak garbi aitortzen du rap-ean aintzindari den Public Enemy taldeari dion miresmena. Baina iruditu zait ez direla

kopiatze edo itzultze hutsean gelditu, Fermin kantariak oso ondo egokitu duela rap-a euskararen ritmo eta esateko modura. Gainera, rap-ean ohizko den nahaste-borrastea egiterakoan, euskal bertsoak edota irrintziak ere erabili dituzte, eta esperimentu guzti horiek oso interesgarriak dira bide berriak aurkitzerakoan.

Dena den, diskoak berak dituen balioen gaitetik, *Negu Gorriak*-en lan honek euskararen eta euskal musikaren bizitasuna adierazten du, nire ustez. Euskara gauza berri eta modernoenetarako gai dela esatea ondo dago, baina honelako lanekin demostratu egiten da. Horregatik, *Egan*-en pasodoblea ez bezala, disko hau asko gustatu bazait ere, orduko poz bera sentitu dut gaurkoan.

Mikel Intxausti



ERROTA

galdarategiak

izena aldatzen du, oraingoa

EPELE, S.L.

Musakola auzoa z/g

Tfnoa: 79 12 44 Faxes: 798887

ARRASATE



ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

SANIDES

Parasitoei aurre egiteko
Insektu narraztiak akabatzeko,
arratoiak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81



ARRASATEko UDALA

Beka-deialdia

Arrasateko Toponimia jaso eta finkatzekoa

- Bekaren helburua, Arrasateko toponimia bildu, sailkatu, kokatu, aztertu eta finkatzeko proposamena egitea da.
- Beka jaso ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:
 - a) Euskal Filologiako ikasketak amaituta edukitzea edo ikasketa horietako azken urtean egotea.
 - b) Aurreko baldintza bete ezean, beka nori eman erabakiko duen epaimahaiaren eritziz "curriculum vitae" egoki eta nahiko frogatua izatea.
 - c) "Toponimoen bilketa eta finkapena Arrasaten" gaiari buruzko txostena aurkeztea.

Eskaerak Arrasateko Udaletxeko Idazkaritza Nagusian aurkeztu beharko dira 1990eko uztailaren 20a baino lehen. Eskatzaileak laugarren oinarrian azaltzen diren baldintzak betetzen dituela kreditatzen duten ziurtagiriak ere aurkeztu beharko dira, nahitaez, eskaerarekin batera.

Era berean, "curriculum vitae" a aurkeztu beharko da.

Bekaren zenbatekoa: 840.000 pezetakoa izango da, 60.000 pezetako 14 zatitan banatuta.

Lana egiteko epea: 14 hilabetekoa.

Hizkuntz funtzioak eta euskara

Aurreko artikulua, hizkuntz funtzio ezberdinen azalpenari eskaini genion. Bertan ikus zitekeen egoera hobe eta txarragoa izango dela, segun eta zenbat funtzio betetzen dituen. Hau kontuan izanik azter dezagun, ba, euskararen egungo egoera.

Edozein hizkuntzek bizirik dirauela ziurtatzeko gutxienik familia funtzioa bete behar du, hau da, senideen edo jende-taldeen arteko hizkuntz transmisioa eman behar da. Horrela ba, esan dezakegu euskarak familia funtzioa betetzen duela. Hala ere, ez dezagun pentsa Euskal Herri osoan famili funtzioa, euskarak betetzen duenik. Toki eta familia edo talde jakin batzuetan bakarrik betetzen du eta, funtzio hori. Esate baterako, Arrasaten betetzen du familia funtzioa, baina, hainbat kasutan bakarrik, porzentai altua maila horren azpitik gertzen bait da. Batzuetan euskara ez dakitelako eta jakiteko premiarik ere ez dutelako, gaztelera menderatuz gero ondo konpondu bait daiteke. Beste kasu batzuetan okerragoa dena oraindik, eus-

kara jakinda familia funtzioetik ere baztertu dutelako. Zorritzarez, joera hau oso hedatua dago Arrasaten eta baita Euskal Herri osoan ere.

Lan funtzioarekin ere antzeko zer-bait gertatzen da. Denok dakigu langileen arteko hizkuntza kolokiala, zenbait kasutan euskara izanik ere, lantegiko gora-behera guztiak euskaraz egiten dituztenak gutxi batzuk baino ez direla. Askoz gehiago dira arazo hau planteatu ere egiten ez dutenak.

Beste batzuentzat euskarak lan funtzioa betetzen du bakarrik; izan ere, lanetik kanpo ez bait dute erabiltzen, ez lagunekin, ez etxean, ez beste inon. Honek adierazten digu, lan funtzioa betetzeak ez duela esan nahi derrigorrez aurreko funtzioak betetzen direnik.

Funtzio lokalari dagokionez, herri txiki eta auzo batzuetan, euskarak betetzen duela funtzio hau, baina ahozko transmisioa da ematen dena gehienbat.

Funtzio Nazionala ere kasu batzuetan du euskarak, baina ugari dira funtzio hori betetzeko gai ez direnak. Gainera

emandako definizioa kontuan izaten badugu, hau da, talde sozial guztiek betebeharrak guztietarako derrigorrez erabili beharrean izan behar dutela, esan beharrik ez dago, bizimodua erdera hutsan egiteko inolako eragozpenik ez dagoen euskal lurralde honetan, lan handia dagoela egiteko. Guzti honetaz gain, kontuan izaten badugu euskara dakigunon artean ere gehiengo ama-hizkuntzan alfabetatu gabea dela, egoera larriagotu baino ez da egiten.

Beraz, euskara hizkuntza nazionala izatera hel dadin nahi badugu, ezinbestekoa dugu, behar bezalako plangintza orokorra egin eta gizabanakoen jarrera kaltegarri era iraingarriak aldatuz, aurre-ragoko funtzioak bete ahal izateko bideak jorratzen hastea.

Eta kontuan izan: ez al da askorengan, batzuetan ohartu gabe eta besteetan nahita, euskaren arazoa konpondua dagoen ideia nagusitzen ari? Ez al da euskara administrazioa irabazten neurri batean eta aldi berean intimidadearen espazioa galtzen ari?



ARRASATEko UDALA

Arrasateko Udalak, aldi baterako, IMI zentzurako zenbait monitore kontratatu nahi ditu. Instantziak hil honen 6a baino lehen aurkeztu behar dira.

Arrasaten, 1990eko ekainaren 28an

Idazkaria

Alkohola gure artean

Orain arte alkoholaren hainbat argitasun egin ditugu eta gaurkoan berriz, gure artean dauden ohiturak aztertzeko garaia heldu zaigu. Beraz, zeintzuk dira gure herriko ohiturak edateko orduan?

Lehen tabakoarekin egin genuen bezala, ikus dezagun zein den inkestatu genituen nerabeek ziotenez, familia barruko giroa edo ohiturak.

Taulan agertzen denez, familia guztietako herena da, aita eta amak edateko ohitura dutenak.


Aitak eta amak edaten ez dutela bakarrik 77 kasutan agertzen da. Emakumeen artean edateko ohitura dutenak herena baino pittin bat gehiago, %35,72a da; eta gizonezkoen artean, berriz, %77,17a. Ondorioztatu dezakegu beraz, inkestatutako nerabe gehienak alkoholaren kontsumoa normala den ingurugiro familiar batean hazten direla. Ez dugu hemen neurria baloratzen baizik, eta maiztasuna. Horretaz gain, haurrek txikitandik ardoa garagardoa eta antzekoak, etxetik kanpo gazte eta helduei ordu guztietan kontsumitzen ikusten dituzte..., hurrengo asteetan argitaratuko ditugun emaitzak erraz ulertuko ditugu, giro honen barruan.

Hemen Arrasaten, tabernak, kafetegiak eta antzera-koak ehunkada bat dago. Hor ditugu gainera, txoko eta elkarteak, 200 biztanle talde bakoitzeko, honelako saltoki bat dagoelarik. Horretaz gain, kontuan izanik beste hainbat tokitan edari alkoholikoak ere saltzen direla beste gauzen artean, ondorio bezala hauxe ateratzen dugu: jai, hazi, ingurugiro honetan garatu eta ez edatea, bitxikeria dela. Gure artean normalena edatea da.

Eukeni / Arantza

GURASOEN OHITURA ETILIKOA

		AMAK			NOIZ BEHINKA	
		BAI	EZ	EZ DAKI		
A I T A K	BAI	320	226	3	181	730
	EZ	15	77	0	9	101
	EZ DAKI	0	2	0	1	3
	NOIZ BEHINKA	3	52	0	57	112
		338	357	3	248	946



Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA)


Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

San Juanetan be bai

B 1990eko San Juanetan bizikleta-ren mundua ezagutu edo ikusi ez duenik ez da izango, seguruenik. Gazte eta ez hain gazteen arteko lehiaketak, eta Espainiako Txapelketa Gatzagara joateko parada izan genuenontzako.

Gazteak, haurrak, kadeteak. San Juan bigarrenen lehen eta bigarren mailako afizionatuak eta Gatzagan profesionalak: Marino, Indurain, Gorospe, Enrike Alonso eta gainetiko euskal ziklista profesionalak.

San Juan bigarrenen I. Zuloaga kalera joan ginen lehen eta bigarren mailako afizionatuak ikustera. Hasieran beroketak egiten eta ondoren martxan Musakolaraino. Benetan, euren mailan, giro polita eta jatorra. Agian, partaide gutxi, baina egin zuen eguraldiarekin Untzillarako bidean izan zirenak malkar luze horietan gozatzeko aukera bikaina.



San Juan egunean Espainiako Txapelketan gertatutakoaren berri ikusteko denok Gatzaga gainera. Hor izan zen jendetza, hor! Milaka

pertsona gure ziklistak animatzen. Txalogarria da euskal afizioaren jarrera eta animoa. Egundoko giroa, hotsa, jendaearen artean, hango ulu eta txilio. Hori da horrela igoteko animoa. Ikusi egin behar zen, hegaz ariko balira bezala. Hori dok hori! - jendearen esanetan.

Horrelakorik ikusteko pena me-rezi du horrelako ikuskizun zoragarri-rik ikustera joateak. Aurki Fran-tziako Tourra, eta batek baino gehi-gok maletak prest.

Badakigu ba, zer datorkigun gai-nera: Tourra! Telebistaz ikusteko aukera baino izango ez dugunok animatzera joatea falta zaigu. Ea aurten esatariek komentario hobeak egiten dituzten! Izango dugu zer esanik eta zer erantzunik aurtengo Tourrean. Baina hori hamabost egun garrengo

K. U.

Gazteak gazteen ikuspegitik ARGAZKI LEHIAKETA

- **Sariak:**


1. 50.000 pta.
2. 30.000 pta.
3. 20.000 pta.

- **Lanak aurkezteko azken eguna**
UZTAILAK 5 (eguerdiko 2etan)


- **Lanak non aurkeztu:**

Gazteentzako Informazio Bulegoan (Tfnoa: 77 00 65)
Udaleko Gazte Zerbitzuan (Tfnoa: 79 09 00)

- **Antolatzailea**



Orain bideoak gure hizkuntzan.



O rain daukazu aukerarik hoberena gustokoen dituzun filmek euskaraz ikusteko.

JC Producciones y Distribuciones, S.A. banatzailearen bitartez, Euskararen Sustapenerako Zuzendaritzak hainbat bideo kaleratu ditu zuk erosi ahal izan ditzazun.



.....eta gehiago



EUSKO JAURLARITZA
Kultura eta Turismo Saila
Euskararen Sustapenerako Zuzendaritza



Aste gazte

Eguraldiak laguntzan badu, uztailean Arrasaten gelditzen garenok, aukera ezin hobea izango dugu Monterron Parkeaz gozatzeko. Udalak Kultur-egitarau erakargarria antolatu du ondo pasa dezagun. Badakizue, uztailean, Monterron Parkean. Non hobea?

Bidaiak

• "Gazteak gazteen ikuspegitik" Argazki-Lehiaketa (Arrasate). 14 eta 35 urte bitarteko edozein gaztek har dezake parte. Sariak: 1.) 50.000 pta. 2.) 30.000 pta. 3.) 20.000 pta. Lanak aurkezteko azken eguna: uztailak 5.

• Loiola 91 Musika Konposaketarako Lehiaketa. Musika-mota: sinfoniko koral, orkestra eredu normalentzat, solistarekin edo gabe. Obra-aren jeneroa: librea. Saria: 3.000.000 pta. eta 500.000 pezetako bi akzesit.

Obren iraupena: 20-45 minutu bitartekoa. Lanak aurkezteko epea: uztailaren 31an amaituko da.

• "Pio Baroja eta Kriminologia" Saiakera-Lehiaketa. Euskaraz nahiz gazteleraz. Lanek 15 eta 30 orrialde bitartekoak ian behar dute. Sari bakarra: 100.000 pta. Lanak aurkezteko epea: irailaren 30era arte.

• "Gazte Irudiak" Argazki-Lehiaketa. 16 eta 25 urte bitarteko edozein gaztek har dezake parte. Zuri-beltzez nahiz kolorez. Sariak: 1.) 100.000 pta. 2.) 75.000 pta. 3.) 50.000 pta. Lanak aurkezteko epea: uztailaren 15a baino lehen.

• Arrigorriagako VI. Pintura Lehiaketa. Kanpoan egindako lanak izango dira, Arrigorriagan bertan, uztailaren 8an. Neurria eta teknika libreak izango dira. Sariak: 1.) 50.000 pta. 2.) 30.000 pta. 3.) 10.000 eta Diplomak.

• Cafe Iruña-Baqué Nobela Laburra Sariak. Euskaraz nahiz gazteleraz. 75 eta 125 bitarteko orrialdekoak. Sariak: 600.0000 pta. Lanak aurkezteko epea: irailaren 30a baino lehen.

• "Urrezko Itxulapikoa" Ipuin-Lehiaketa. Gazteleraz. Ipuinak, gu-

txienez 3 orrialdekoak izango dira eta gehienez, 10 orrialdekoak. Sari-zenbatekoa, guztira: 1.000.000 pta. Lanak aurkezteko epea: irailaren 30a baino lehen.


Bekak

• Arrasateko Toponimia jaso eta finkatzeko beka. Baldintzak: Euskal Filologiako ikasketak amaituta edukitzea, edo azken urtean egotea, edo "curriculum-vitae" egoki eta nahiko frogatua izatea. Bekaren zenbatekoa: 840.000 pta. Eskera: uztailaren 20a baino lehen.

• 91/92 ikasturtean Suitzako Unibertsitate eta Eskola Politeknikoetan espezializazio eta ikerketa azterlanak egiteko. Frantsesa nahiz alemanera menperatzen duten 35 urtetik behereko graduatuentzat. Bekaren zenbatekoa: 1.350 F. suitzar hileko. Epea: 90-9-21.

• 91/92 ikasturtean Suitzan goi mailako ikerketa ikasketak burutzeko 35 urtetik behera izan eta frantsesa nahiz alemanera ongi dakiten graduatuentzat. Bekaren zenbatekoa: 1.350 F. suitzar, hileko. Epea: 91-1-15.

Informazioa: 77 00 65




IÑAKI

garabiak

Etengabeko zerbitzua

Tailerreko tfnoak: 79 15 23 9etatik 1era eta 3etatik 8etara
Etxeko Tfnoa: 79 07 12
Nao Santiago 4, ARRASATE



Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

ETXEBIZITZAK

- Cambrils-en (Tarragona) apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 945- 22 38 03 Natividad de Santiago.
- Alokatzeko pisua behar dut Arrasaten edo Aretxabaletan. Tfnoak: 79 13 95 eta 79 16 57 goizeko 9etatik arratsaldeko 2ak arte. Flor Tellez.
- Torreveijan bungalow-a alokatzen da ekain, uztaile eta irailean. Tfnoak: 79 15 74 eta 79 30 47
- Loramendi kalean 6.pisua salgai 80 m2. Amuebletuta. Tfnoa: 79 24 89 (arratsaldez)
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da. Tfnoa: 79 45 74.
- Laredon apartamentua alokatzen da. Informazio gehiagorako deitu 79 52 80 tfnora.
- Pisu amueblatua behar dut alokari-ruan. Dei 79 13 95 edo 79 16 57 tfnora astelehenetik ostiralera, goizeko 9etatik eguerdiko ordubietara. Flor
- Neska ikasleak pisua behar dugu alokatzeko. Tfnoak: 72 11 43 Begoña, eta 55 45 35 Juana.
- Pisua alokatzen da Erguinen. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 40.000 pta. hilean. Tfnoa: 211225 10.00etatik aurrera.
- Zarautzen udarako teilatupea alokatzen da, oso merke; bost ohe ditu. Hondartzatik gertu. 13 07 90 Juanita.
- Alde zaharrean etxe merkea erosiko nuke. Dei goizez edo arratsaldez 77 09 40 tfnora.
- Neska ikasle talde batek alokatzeko pisua behar dugu Arrasaten. Harremanetan jartzeko deitu 69 08 19 tfnora.

LANA

- Latin klaseak ematen ditut. Interesatuak 79 50 88 Tfnoa deitu. Garbiñe.
- Neska euskalduna behar da Donostia-ko etxalde batean. Ez da bakarrik egongo. Soldata ona. Interna. Tfnoa: 40 00 86 bulego orduetan.
- Gazte taldeak pinudiak garbituko lituzke edo antzekoak. Tfnoa: 79 97 84 Kazintxo
- Umeak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. M^a Jesus. Tfnoa: 79 99 17
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Ikasle unibertsitarioak udako hilabeteetan edozein lan egingo luke. 79 51 95 telefonora deitu.
- 18 urteko gazteak udako hilabeteetan edozein lan egingo luke. Tfnoa: 79 51 95.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak 79 98 34 tfnora. deitu, arratsaldeko 13.00ak eta 16.00ak bitartean.
- Eskoriatzan klase partikularrak. Mailak: OHO kurtsu guztiak. REM-BUP-UBI, euskarazko klaseak. Ek REM-BUP-UBI, euskarazko klaseak Ekaina, Uztaile, Abuztua. Arrazoa: Tfnoa: 79 17 19. (20.00-22.00 ordu bitartean)
- 1 REM-IEE (euskara)eko neskatilari natur klaseak emateko pertsona behar da. Tfnoa: 79 39 49
- Andra, 40-50 urte bitartekoa, etxeko lanak egiteko behar da. Interna. Tfnoa: 79 16 63
- Gazte unibertsitari batek udako hilabeteetan OHO ikasten ari diren neska-mutikoei klaseak emango litzaieke. Tfnoa: 79 51 95

SALEROSKETAK

- Mobylette GAC baten paperak behar ditut. Baldin badituzu dei nazazu negoziatzeko. 79 97 69 Iban.
- Vespa 200 salgai. Tfnoa: 88 28 63. Aitor.
- R 12 egoera onean eta merkea salgai. Tfnoa: 79 17 21. Iñaki.
- BMW batentzako maletak erosiko nituzke. Tfnoa: 79 17 21. Iñaki.

DENETARIK

- Irungo ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren batekin aldaketa egingo luke. Interesatuak dei dezatela tfno. honetara: 79 26 59
- Laudioko ikastolan kontrato finkoaz lanean ari den andereño batek Durango-Arrasate inguruko ikastoletako irakasleren batekin aldaketa egingo luke. Tfnoa: 94- 681 40 25
- Uxue, Maider, eta Olatz: Gure lehengusu Xabier Idigoras zoriondu nahi dugu bere 14. urtebetetzean. Zorionak eta ondo pasa eguna.
- Tarota, kartak eta eskua irakurtzen ditut. Interesatuak dei Tfno. honetara: 76 50 58
- Zuk ez dakizu "Jo ta fuego" euskal esamolde denik, ala? Gainera, gu hain lotsagabeak bagara eta zu hain zintzoa, zergatik ez duzu zure izenarekin izenpetzen? Jo ta fuego. Goñi
- Jo ta fuego. Amonari osatu zaio katarro ekologista hura, eta zuri? Noiz erosiko duzue mikrouhin berria? Muxuak, zenbat? Dagokizuen kopurua atso zaharra. Goñi

ARRASATEN HILDAKOAK

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka 1,
20.500 ARRASATE Tfnoa: 77 05 65

Famauen ahotik

Santi Unamuno; sokatira entrenadore



Santi, Atxondoko ekipuaz

Hemeretzi urtekin sokatiran hasi

Oin hogetameretzi urte dala ero Iturripe zaharrien, "fiesta vasca" eñ zan eta sokatirire be orduen preparau zan.

Illunkera baten Felipe Nafarrate difuntue etorri zan exera ta esan eusten, "zueik mutiko batzuk hor, sokatiran eñ bihe dozue". Bueno, pentsau bez esan nutzen baiñe, baietz eta baietz, eta ba, eñ gauen. Ekipuen zortzi izeten die, baiñe orduen bostek tiretu gauen, Luis Errarte, Juantxu Berezibar, Inazio Unamuno, Joxe Abarrategi eta neuk. Hemen orduen Mietzerreka, Udala, Uribarri eta Zarugaldeko ekipuek eozen, gure onduen persona nausixek. Baiñe, gogor eindre batzuk galdu arren beste batzuk irebazi be eñ gittuen.

Holan hasi eta gero Luistarren sokatiriek jarreittu auen Mondrauen eta guk Garagartza eta Santa Agerarren ekipuek eukitten gittuen harraman danak irabazten gittuen.

Mutiko gaztiek entrenetan

Urte asko tiretu barik eindre gero, hemen "juegos populares vascos", herri arteko txapelketak egon zien. Orduen hasi zien San Viatorrekuek jende gaztiaz eta lehenengo tiradan, sokatiran azkenak geratu zien. Orduen esan eus-

tien ia lagunduko nutzien eta halan hasi nitzen mutiko gaztiek entrenetan.

Hurrengo tiradie Eibarren izen zan eta lehenengo urten gauen. Batzuk esaten auen, "Arrasatearrak drogau eñ dittuk, aurrekuen azkenengo eta oiñ lehenengo, zelan dok hau!"

Hiru modalidadetan tireketan gauen eta hemen inguruko festibaletan, Euskadiko Kanpeonatuaren eta danien hartzen gauen parte eta lehenengo, bigarren hor ibiltten gitzen, baiñe laguntasunik ez gauken eta jareñ eñ gutzen.

Beste hiru urtien, Atxondoko ekipuaz ibili naz, hara eruen nindduen entrenadore eta hemen ibili zien mutil batzukin batera eñ nauen ekipue eta urte bi garrengo bigarren geratu zien, baiñe horreik pe ba, laguntasunik eztauela eta pena haundixaz itxi auen ekipue.

Sokatirako reglamentue

Ezin leike hankaik apoiu bata bestiekin, besuek pe garbi, ezin dozu besapeien sartu sokie eta etzin soka gaiñera, garbi tiretu bihe dozu bestela falta eta hirugarren faltan deskalifikaute.

Lenau gerrixei lotute izeten zan, oiñ lepotik bueltan besapera baiñe lotu barik. Nik esango nauke oiñ eitten dan posturan lenau gerrittik baiñe indder gehixau eitten dala.

Tirada gogorrak

Gehixen-gehixen, izen da be hiru minutu ero halan eitten gittuen, bosterañokuek pe izen die baiñe oso gutxi.

Minutu t'erdie eñde be tirada gogorra, bi minuture allegau ezkerero gero ostien pasetan dan denporie ia ez baten-dako ez bestiendako.

Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

Zelebrequerixak

Zorioneko bixamona gau guztia parrandan bota eben bi plaentziarrena. Bata joan zan bestian billa. Bigarren hau jeiki ezin.

— Baiña jaiki hari, lanerako ordua dok eta.

— Ezin baiña, ezin neikek zuzendu.

— Ala, tira, barriketa barik.

— Egixa zan gaiñera. Justu justu zutitzen zan, baiña tentetu arren ezin zuzendu gizonori. Deittu zotzen Plaentziako medikuai eta ezotsan ezer billatzen baiña gizona zuzendu ezin; gero Bergarakuai, eta igual. Danak billurtu eta Eibarko Don Ziriako Agirrerri deittu zotsen. Honek ikusi dau eta...

— Zer ete daukat, Don Ziriako?

— Ezta ezer, ezta ezer.

— Zela eztala ezer?

— Ezebez. Daukazuna da alkon-daria kantzontzillo-botoiak lotuta, eta jakina, zuzendu ezin.

♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦

"Taketa" ona eta borondatekoa beste, aldrebesa ei zan. Gauza guztiak aldrebes esaten ei zittuan. Baiña tontotik ikutuik pe ez zen. Idurixon kriau zauela, egualdi hotz eta euritsua zan baten, hala galdetu ei zotsan ugazabai:

— Hi, Martin, ardittara heu joango haiz ala neu geratuko nok etxien.

Juan Martin Elexpuru

comercial
san juan

Garibai 12,
Tfnoa: 79 13 05

hikein
BRIKOLAIA

Zerkaosteta 4,
Tfnoa: 79 13 84



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE



Mondragoeko zortzikotea, Euskal Herriko txapelduna. 1950

Plaentxiako festak ziren. Jai egitarauaren barruan, Zortzikote Txapelketak leku nabarmena izan zuen. Euskal Herri guztiko zortzi zortzikote aurkeztu ziren, Plaentxiako pilotaleku estalira, tartean Arrasatekoa. Zortzikote bakoitzak bi abesti kantatu behar zituen, obligaziozkoa bata Victoriaren *O Vos Omnes* kasu honetan, eta aukerakoa

bestea. Soralezeko pilotalekua leporaino beteta.

Azkenean, Gasteiz eta Arrasateko zortzikoteek puntu berdinekin amaitu zuten. Horregatik, obligaziozko kantua berriro abestu behar izan zuten. Irabazlea, Mondragoeko zortzikotea. Lehen saria mila pezetakoa izan zen.

Bigarren iladan, ezkerretik hasita, Patxi Nafarrate, lehen

tenorea. **Pedro Barrutiabengoa**, baritonoa, **Felix Ugalde**, baritonoa, eta **Pepe Castellanos**, bigarren tenorea.

Lehen iladan, ezkerretik **Jose Antonio Agirre "Maño"**, baxua, hila aspaldi. **Luzio Markaide**, baxua, taldeko zuzendaria zen; abadetu eta Ameriketara hil zen. **Jesus Palacios**, bigarren tenorea eta **Fernando Aranburu**, lehen tenorea.

**PUB
HAIZEA**




ENARA 
OSAGIRRIAK


Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32




Hieroglifikoak




Non zegoen lo?



Trakets



Jan duzu ogia?



Non nago ni, Anttoni

ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa:77 08 15

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

Bideak

I

Noraezen abiatzeak
aurrean beti bidea izatea du abantaila.
Nahiz eta antzarrak neguan etxean gelditu
eta arbolen jantziak urtean birritan erori,
bide ertzeko aulkiei jaramonik ez.
Noraezean abiatzeak
aurrean beti bidea izatea bait du abantaila.
Nahiz eta egunean hogeitazazpi aldiz
eskuak garbitu behar izan,
eta semaforoek ukapen gorriena eskeini
egunero.
Noraezean abiatzeak
aurrean beti bidea izatea bait du abantaila.

II

“Erromes galduak bide ertzeko agureari galdetu:
- Zein da biderik ziurrena?
Eta bide ertzeko agureak:
Haizearen kontra orrazkera galdu gabe bidaiatzeko
modu bakarra: zuzen aurrera.
Eta bidekurtzean gurutzerik
aurkituz gero, kontuz: segi zuzen aurrera,
eskumatara jo gabe”

Edozein

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



J. M. Heriz

**Konpromezurik gabeko
aurrekontuak**

Otalora Lizenziatua. Arrasate

■ **Getxo irratia.** Elorriotik nentorrela, irratia piztu eta dialean dantzan hasi nintzen. Musika polita zuen emisoran gelditu nintzen. Halako batean. "Egun on, hau Getxo irratia duzue..." entzun nuen. Harritu egin ninduen Getxo irratia Elorrion hain ondo entzuteak. Kanpazarreraino primeran entzuten zen. Honantza etortzen, Sara parean hasi ziren zarata batzuk hartzen. Villa Tranquilan oraindik entzuten zen, Muxibar pareraino. Hor gaizki jasotzen zen.

■ **Loiolako Herri Irratia San Juanetan.** Azken urteetan bezala, aurten ere Loiolako Herri Irratiak saio bereziak eskaini dizkie Arrasateko San Juanei. Oraingo honetan Udaletxe berriztua ere erabili dute. Lazaro Azkunek zuzentzen zuen taldeak ederto erakutsi zuen era honetako saioetan eskarmentuak ikaragarri balio duela. Gauzak oso erraz egiten zituzten, elkarritzatuak artez eta samurtasunez tratatuz.

■ **San Juanak telebistan.** Aurtengo San Juan jaiek tratamendu berezia izan dute ... Arrasaten Telebistan, non bestela. Lehenengo aldia zen zuzeneko emanaldiak kanpotik ematen zirela eta erronka latza benetan.

Emaitzak oso onak izan direla uste dut. Denetara 70 pertsona inguru elkarriketatu ziren. San Juanetan. Eman diren gertakizun gehien berri jaso ahal izan dute herriko festak ATBren leihotik ikusi dituztenek. Herritar batek bere harridura adierazi zuen ez bait zuen uste San Juanetan hainbeste ekitaldi antolatzen zenik.

Dena dela, aipatuz gain, goraiatu egin behar dira S. Juan egun hauetan lan eskerga egin duten guztiak. Hamalau pertsona ibili dira talde teknikoan, hiru kazetaritza lanetan eta hamaika aurkezle.

Arrasate hain egon daiteke guzti hauen lan bikainaz.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **Tenisa:** Aukera polita eskainiko digu ETBk datorren astelehenetik hasita, Wimbledon-eko txapelketaren azken ihardunaldiak zuzenean ikusi ahal izateko. Egunero, arratsaldeko 3tatik 5etara, gertatutakoaren laburpena eta partidu bat zuzenean.

■ **Bizirik iraun:** Sylvester Stallonek 1983an zuzendutako filmea, asteartean, 21.50ean. Antzezleen artean garrantzitsuena, John Travolta ezaguna. Sei urte igaro dira Tony Manerok Brooklyneko zubia pasatu zuenetik lan eta arrakasta bila. Orain taberna bat daramana gaez, egunez jazz klaseak jasotzen ditu, eta denbora librean dantzatzera joatea gusatzatzen zaio, dantzatzera...

■ **Amerikar bat Parisen:** Vincente Minelliren pelikula, asteazkenean, 21.50etan. Antzezleak Gene Kelly, Leslie Caron eta Oscar Levant. Jerry Mulligan, Parisen bizidun artista amerikarra da. Bizimodu xelebrea darama. Emakume aberats batek dirua eskaintzen dio, baina Jerry denda-saltzaile batez maiteminduko da... bere lagunik onenaren andragai den denda-saltzaileaz maitemindu, hain zuzen ere.

bideoak



Basamortuko erregina

Zenobia, Kleopatraren kastako emakumezkoa, Palmyra hiriko erregina izatera iritsi zen. Palmyra zetaren bidean hiri inportanteenetakoa zen. Bost urteetan zehar gobernatu zuen, basamortuko tribuak gidatuz eta Ekialdeko erregina izanik. Erromatarrek, ostera, ez omen zeuden gustora Zenobiarekin...

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)


Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Xabier Amuriza eta Jon Sarasua ere izan ziren Sebero Altubeko platoan. Elkarrizketa egin ostean, bertsoei ekin zieten. Jendetza handia bildu zen ATBk zuzenean eman zuen saioa ikustera. Ezinbestean, bertso saioaren zati ederra Arrasate Telebistaren inguruan eman zuten.



Denetara 70 pertsona ekarrizketatu ziren Sebero Altube plazako platoan, S.Juanek iraun duten lau egunetan. Horretarako 11 elkarrizketatzaile izan ditugu. Zorionez, ez zen eruririk izan, baina astelehenean adibidez, 35º jasan behar izan zituzten eguerdian, eta ekaitz haizeak arratsaldean. Kontuak kontu, denak ederto baino hobeto egon ziren. Zorionak!

Eresikoen furgoneta honetan errealizazio lana egin zen. Hiru monitore eta nahasketetarako mahaia zeuden han. Handik irudi bakarra bidaltzen zen Ospitale Zaharreko estudioira. Estudiotik Seberoko irudiei kamara ibiltariak grabatutako erreportaiak tartekatzen zizkieten, edota bideoklipak.



asteko

PROGRAMAZIOA

2 ASTELEHENA

20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztua
20.20 **San Juanak 90**
Larunbat arratsoko saioaren errepikaldia
Berriak(errepikaldia)

3 ASTEARTEA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **S.Juanak 90**
(bezperakoa)

4 ASTEAZKENA

20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztua.
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, mahaingurua. Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: Oporrak. Gonbidatuak: Imanol Bolinaga, Damaso Gallastegi, Esteban Illarramendi.
Berriak(errepikaldia)

5 OSTEGUNA


12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
13.00 **S.Juanak 90** Ekainak 24, igande goizeko saioa.
20.00 **S.Juanak 90** Ekainak 24, igande goizeko saioa.

6 OSTIRALA

20.00 **Berriak** Koldo Rodriguezek aurkeztua.
20.20 **Erretratoa** J.R. Elortzak zuzendua. Gonbidatua: Paulo Garai.
20.50 **Musikantoi** Patxi, Asier, Mikel eta Pepak egina.
Berriak(errepikaldia)

7 LARUNBATA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
12.50 **Musikantoi**



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimaklariak
- Bulegoko materiala



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Nekeza egiten zaizu bameko sentimentuak adieraztea, horregatik sortzen da hainbeste gaizkiulertu esaten duzunarekin. Hala eta guztiz ere, esaitzu, bestela errebentatu egingo duzu eta.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Ez, ez da hainbestearinokoa egin beharrekoa, baina gogo gutxiarekin hartzen duzu, eta ez zaizu motiborik falta gainera. Egiozu kaso pixka bat elikadurari.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Gauzak bere tokian jartzeko aste aproposa datorrena Gemini, bai familia bai lagunarteko harremanei dagokienez eta baita ere epe laburrako dituzun proiektu horiei.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Bai arazo sentimental horiek bai lanekoak argitu egingo zaizkizu, eta ez hori bakarrik, traba guztiak desagertuz doazela konturatuko zara.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Lagunik badaukazu, kaso handiagoa egiozu Leo, hartu beharko dituen erabakietarako baliagarri izango zaiolako. Ingurukoekin harremanak sendotzea aberasgarri izan liteke.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Lana eginez gero, egin nahi duzuna lortuko duzu, baina burubelarrari aritu beharko. Baliteke gorabehera handiak izatea emozionalki, baina aurreragorako laga ezazu horren zergatia.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Zure eritzia baino ez duzu hartuko kontuan, edozertarako, kontuz! baliteke zeure buruarekin etsitu eta kursialdi batean sartzea eta.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Guztiaren berri ondo jakin arte ez ezazu hitzik egin. Arazo materialik emozionaleri tartea hartu ote dieten edo, jakitea komenigarri litzateke Eskorpio. Zuhurra izan.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Aste honetan inguruko guztiak zuregan jarriko dute arreta, baliteke guztiz kontrako jarrera azaltzea pasatzea ere eta. Harreman hori finkatzea zure nahiaren baitan egongo da.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Umore gorabehera handiko aste datorrena Kaprikornio, gaizki-ulertu ugari izango da eta lagunarekiko urruti sentituko zara. Onen-onena gutxi berba egin eta besteen esanak arretaz entzutea litzateke.




AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Garbi ikusten ez duzun bitartean, ez eman aurrerapausurik, ez zaude behartuta. Laguna eta biok ez zarete oso osoko ibiliko, elkarrenganako duzuen mesfidantzaren ondorio izan liteke.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Zure nahiak beteitzu, batez ere lanean eta xoxekin zerikusirik duten arazoetan. Aisealdia aprobetxa ezazu, sormenerako aste aproposa izango bait da datorrena.



IBM ondenadorea, paregabera

bere kalitate garantian prestazio eta orain bere prezioagatik ere bat.

P.S.N/P.V.P **179.300** pta.



Kontzesionari
Baimendua

Ordenadore
Pertsonalak

Modelo honetarako IBMren kontzesionari baimendua den LOGIC CONTROLek, atseginez aurkeztzen dizue eskaintza hau prezio/errendimendu arteko erlazio bikainagatik eta bere saltoki guztiak zuen zerbitzua dauzka, nahi izanez gero, zeuk bertan ikusi ahal izateko.

Gasteiz Etorbidea 63,
Tfnoa: 945 - 24 63 08

Faxa: 24 11 69

GASTEIZ

**LOGIC
CONTROL**

Monterron Parkean

(Eguraldiak laguntzen ez badu, Amala Antzokian)

Uztailerako Kultur Ekintzak

• ZINEMA

Osteguna, gaueko 10.30etan

5ean. **Los fabulosos Baker Boys**

12an. **Wilt**

19an. **Este muerto está muy vivo**

• ANTZERKIA

7an. GEROA: **La piel prestada**

20an. MARCELINE i SILVESTRE: **Miscel-Lanies**

27an. CLOWNART: **Pasión fatal**

• MUSIKA

13an. **ROUND TRIP JAZZ** Taldea

14ean. **CASSE PIEDS**

28an. **TXINTXARRI**

• DANTZA

6an. Donostiako Kontserbategiko **BALLET TALDEA**

21ean. **TURKIAKO** Talde Folklorikoa



Arrasateko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

MRW

WORLDWIDE COURIER

HIRI ETA ESTATU
BARNEKO ETA NAZIOARTEKO

BIDALKETAK

ALBACETE, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 3. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torreveja**, Avd. Diego Ramirez, 223. Eucenfer. T. 96-571 73 91 - **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Ejido**, Alvaro Soto Mayor Gal. Cial. T. 951-48 36 13 - **Huerca Overa**, Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-2112 67 - **BADAJEZ**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito**, San Francisco, 3. T. 924-84 33 07 - **Mérida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA**, Andrea Doria, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca**, Edison, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor**, Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza**, España, 30. T. 971-30 16 00 - **Formentera**, Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela**, Cami d'es Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón**, Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorías Urbanas**: **Feria de Muestras**, Palacio de Congressos - **Boulevard Rosa**, Pº. de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa"**, Diagonal, 635 - **Cristal**, Gran Vía, 1176 bis - **Jonquera**, Jonquera, 2 - **Mercuria**, Vía Augusta, 59 - **Nerviú**, Vía Layetana, 20 - **Windsor**, Vía Augusta, 2 - **Finacia**, Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón**, Drassanes, 6-8 - **Mercabarna**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hipercor**, Meridiana, 354 - **Padilla**, Padilla, 205 - **Carlos III**, Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barberá**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umbert, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Plaza. Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 00 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Comas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetana Ventalló, 87. T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñol, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyá**, Mayor, 5-7. T. 93-726 72 20 - **Premia**, De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubí**, Avd. Catalunya, 4. Edif. Iris. T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18 - T. 93-726 43 77 - **S. Andrés B.**, Piza. Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarrasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Martí Genués Aguilar, 25. T. 93-885 62 50 - **Villafraanca**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, Gornal, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7 - T. 94-443 76 08 - **Receptorías Urbanas**: **Feria de Muestras**, Zona Servicios - **Cámara de Comercio**, Alameda Recalde, 50 - **Bermeo**, Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guernica**, Bº. Txaporta, 3. T. 94-685 55 00 - **BURGOS**, Comunes Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31. 06 40 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Salvador, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Casilda, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-52 18 01 - **Jerez F.**, Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11 - **LAS PALMAS**, San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuenteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Edif. Mancomunidad, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés**, Centro Comercial Nilo, loc. 1030 - T. 928-76 66 53 - **TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLÓN**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, 10. T. 964-47 47 79 - **Vall de Uxó**, Plaza Villavieja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL**, Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas**, Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Liria, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lucena**, Hoya del Molino, 6. T. 957-59 13 71 - **Pozoblanco**, Dr. Antonio Cabrera, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUNA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16. T. 981-32 02 00 - **Santiago C.**, Pasadizo Brión, 11. T. 981-56 22 55 - **Riveira**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73 - T. 966-22 92 21 - **GERONA**, Andrés Tuya Santamaría, 13. T. 972-21 55 66 - **Figuera**, Verge María, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional II, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Pare Roca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de Sant Joan, 6. Tel 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972-88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma. de Lera, 4. T. 911-21 58 16 - **HUELVA**, Fernand el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Saez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA**, Concilio de Ibon, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garigas, 13. - T. 973-20 57 58 - **Tárrega**, Dr. Riu, 7. T. 973-31 30 68 - **Viella**, Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGROÑO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricio, 41. T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Meilán, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas**: **Gran Vía**, Gran Vía, 67 - **Indubuilding**, Vía de los Poblados, 9 y 11 - Nº. 3. Sor Angela de la Cruz, 24 - Nº. 4. Cedaceros, 9 - **La Caixa**, Pº. Castellana, 51 - **División Internacional**: Coslada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pintor Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25,8. Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda**, F. García Lorca, s/n. Urb. Delta. T. 91-638 78 97 - **Getafe**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando**, Sierra Albaracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n, L.3C. T. 952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas, P-3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Melilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparril, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**, Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torre del Mar**, Urb. Pueblo Rocío, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascales, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya, T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 7. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Peñora, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Diaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia, T. 986-84 43 12 - **Lalín**, Corredoira, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Piñeiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Vilagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Oñoro**, Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN**, Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeltia**, Polig. Ind. 35, Barrio Landeta, T. 943-81 54 08 - **Eibar**, Pso. Urquiza, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondragón**, Avd. Vizcaya, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n. Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Celestiano, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega**, José Luis Hidalgo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladreda, 28. G.C. Loc. 10. T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas**: **Sevilla-2**: Francisco Javier, 9 - **Torre de los Remedios**, Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27. T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar. 19. T. 977-22 25 22 - **Ampostá**, Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **Tortosa**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Vedruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guia, D.8. T. 974-60 85 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-80 02 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Bigorra, 7. T. 96-341 44 22 - **Receptorías Urbanas**: **Feria de Muestras**, Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alcira**, Pza. Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandia**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente**, Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Pza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Llodio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiles, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.

• HIRI BARNEKO ZERBITZUA

* Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)

* Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)

• ESTATU BARNEKO ZERBITZUA

* Gau eta egun

• NAZIOARTEKO ZERBITZUA

* Courier zerbitzua

* Aire-karga zerbitzua

* Itzulpen zerbitzua

ARRASATE

Bizkaia Hirib. 16, Tfnoa; 79 96 97

EIBAR

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

AZPEITIA

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

DURANGO

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62

INFORMAZIOA
900 300 400NCCA
NACIONAL COURIER ASSOCIATION

-ko kide

MRW
WORLDWIDE COURIER

-ko kide